

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**7/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 8koa. Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Ibilgailu Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1079.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko deialdiaren ebazpena**

Irailaren 5eko 310/2024 Foru Aginduz (irailaren 20ko ALHAOko 107. zenbakian argitaratua), deialdia egin zen Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Ibilgailu Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1079.001) berariazko lehiaketa bidez hornitzeko.

Merezimenduen balioespenaren emaitzak argitaratuta, balorazio organo teknikoak proposatzen du lanpostu hori Juan Jesús Tapia Españari esleitzea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta Foru Gobernuaren ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horrez gain, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritik,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Juan Jesús Tapia España behin betiko atxikitzea Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren Ibilgailu Zerbitzuaren buruaren lanpostura (kodea: 1079.001), hango eginkizunak betetzeko.

Bigarrena. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 98.6 artikuluaekin bat etorritik, lehiaketaren bidez postua lortzen duten funtzionarioek ezingo dute hurrengo bi urteetan deitutako deialdietan parte hartu. Nolanahi ere, denbora-muga hori ez da aplikatuko funtzionarioek lanposturako adskripzioa galduz gero lanpostutik mugiarazi dituztelako edo lanpostua ezabatu delako.

Hirugarrena. Jatorrizko lanpostua 2025eko urtarrilaren 16an utziko du.

Laugarrena. 2025eko urtarrilaren 17an jabetuko da esleitutako lanpostuaz.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 8a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,  
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**